

IBILGAILUENTZAKO ARAUTEGIA OINEZKOEN KALEETAN

- zirriborroa -

Salbador, Lasao eta San Roke kaleetan zein Espaloia Kafe Antzokirako bidean oinezkoek dute lehentasuna eta hori ziurtatzeko helburuarekin egiten da arautegi hau.

ARAUAK

1. Baimendu gabeko ibilgailuek debekatuta daukate Salbador, Lasao, San Roke kaleetan eta Espaloia Kafe Antzokirako bidean ibiltzea.
2. Ibilgailuek debekatuta daukate Salbador, Lasao eta San Roke kaleetan eta Espaloia Kafe Antzokirako bidean aparkatzea.
3. 4 tona baino gehiagoko ibilgailuek guztiz debekatuta daukate Salbador eta Lasao kaleetan ibiltzea eta aparkatzea baimen bereziarekin izan ezik.
4. Bariku 16:00etatik astelehen 8:00ak arte, Espaloia Kafe Antzokirako bidea eta San Roke kalea (elizatik behera) itxita egongo da. Emergentsia kasuak eta kasu bereziak aparte utziz: musikarien furgonetak, antzerkietako kamioiak eta artisten taularatzearekin zerikusia duten joan-etorriak.

BAIMENDUAK

Baimenak ondoko erakoak izan daitezke:

1. Herritar baimendu arruntak:

- 1.1. Baimendu arruntak dira hiru baldintzak betetzen dituztenak:
 - 1.1.1. Elgetan erroldatuta daudenak
 - 1.1.2. Autoa Elgetan erregistratuta dutenak
 - 1.1.3. Salbador, Lasao eta San Roke kaleetako bizilagunak eta baxuetako jabeak.
- 1.2. Ibilgailuko mandoaren kopia bana banatuko zaie udaletxean eta izena emango dute horretarako egingo den erregistroan. Mando gehiago behar duenak udaletxera etorri beharko du. Mandoa ordaindu beharko du eta noretzako den esan eta erregistroan jasoko da. Honek Elgetan erroldatuta egon beharko du. Lokalen jabeek mando gehiago behar badute udaletxean eskatu beharko dute, mandoa ordaindu. Kasu honetan mandoa jasoko dutenak Elgetan erroldatuta egon behar dute eta autoak ere Elgetan erroldatuta egon beharko du. Mandoa izorratu edo galdu ezkerro zein mandoaren garantia bukatzen denetik aurrera Udalak ez du mandorik doan emango.

1.3. Baimen hau Elgetan erroldatuta egoteari utzi edo ibilgailuari baja ematean amaituko da. Kasu horietan bizilagunak mandoa udaletxera bueltatu beharko du.

2. Herritar baimendu bereziak: haurdunaldiak, osasun ezintasunak eta antzerakoak.

2.1. Salbador eta Lasao kaleen inguruko itxitako eremuan eta San Roke kalean bizi eta nolabaiteko ezintasun fisikoa duten bizilagunak izango dira herritar baimendu bereziak.

2.2. Baimen hau aldi baterakoa eta pertsonala izango da.

2.3. Bizilagun hauek baimena udaletxean eskatu beharko dute. Eskaerarekin batera ezintasunaren gainean medikuak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, bertan zehaztuz ezintasunaren zergatia eta denbora. Baimena amaitzean mandoa udaletxera bueltatu beharko dute.

2.4. Baimen hau lortzeko ez dago Elgetan erroldatuta egon beharrik.

3. Zerbitzuetarako baimenak:

3.1. Salbador eta Lasao kaleen inguruko itxitako eremuan eta San Roke kalean komertzioen ohiko hornitzaileek izango lukete baimen hau.

3.2. Baimena udaletxean eskatu beharko da.

3.3. Baimena epe baterakoa izango da eta baimena amaitzean mandoa udaletxera bueltatu beharko dute.

3.4. Ez da baimen hau emango lau tona baino gehiagoko ibilgailua baldin bada zerbitzua ematen duena.

4. Larrialdietarako baimenduak:

4.1. Suhiltzaileek piboteak jeisteko giltza dute.

4.2. Giltzapean eta emergentzia kasuetako erabilpenetarako bakarrik piboteak jeisten dituen giltza egongo da pibotearen aldameneko kaxan.

4.3. Emergentzia kasu batean anbulantzia edo Ertzainek portaleko ateraino iritsi behar badute giltza horrekin izango dute pibotea jaisteko aukera.

5. Baimen bereziak:

5.1. Lau tona baino gehiagoko ibilgailua(k) sartu behar baldin bada derrigorrez eskatu beharko da baimen berezi hau udaletxean.

5.2. Baimen berezia aldiro eskatu beharko da. Aste bete lehenago udaletxean.

5.3. Baimen bereziaren eskaleak idatziz azaldu beharko ditu ibilgailu(ar)en pisua, eguna, ordua, lanen iraupena...

5.4. Kamioia datorrenean derrigorrez udaletxeko langile bat egongo da jarraitu beharreko bidea zehazten. Beti berak jeitsiko du pibotea.

- 5.5. Honelako ibilgailuek ezin izango dute buelta hartzeko maniobrarik egin eremu adokinatuaeren gainean dauden bitartean.
- 5.6. Karga eta deskarga bereziak: karga eta deskarga bereziak kontsideratuko dira noizbehinkako lan puntualak: etxebizitza aldaketa, pisu handiko materialeak etxetik ateratzea, mudantzak, etxeko obra txiki edo haundiak...
- 5.7. Baimen berezietan udalak eskaera aztertu eta baimena ematen duen edo ez erabakiko du.

ISUNAK

- 1.- Lehenengo, bigarren eta laugarren arauak ez betetzeak ondorengo isunak ditu:
 - Lehenengo aldian abisua.
 - Bigarren aldian 60 euro eta trafikon isunaren berri ematea.
 - Hirugarrena eta hortik aurrerakoetan bigarrenaren berdina.
- 2.- Baimen bereziaren eskakizunak ez betetzeak ondorengo isunak ditu:
 - 500 euroko gutxieneko isuna, alde batetik, eta bestalde, izango balira, arauz kanpoko ibilerak sortu dituen kalteen konponketa. Kalte hauek konpontzeaz udaletxea arduratuko da eta konponketen kostua baimen eskatzailearen kontura izango da. Eta eskatzailea ez balego kalteak eragin dituenaren kontura.
- 3.- Isuna 48 ordu barruan ordainduz gero % 33ko beherapena. Beherapen honetan ez dira sartzen legez kanpoko ibilerak eragin ditzaken kalteak.
- 4.- Isuna jaso duenak aukera izango du udaletxean alegazioak aurkezteko.

KASU BEREZIAK

Arautegian jaso nahi izan ditugu eman daitezkeen egoera berezi guztiak. Arautegian jasota ez dauden egoeren gainean Udalak hartuko du erabakia.

Elgetan 2009ko irailak 8an